

Ekimen edo proiektu bat gauzatu ahal izateko behar diren **gaitasun** ustez garrantzitsuenak zerrendatu ditugu irakasleen burubideak oinarritzat hartu eta gero.

Gaitasun horietako batzuk **etapa jakin batzuetan baizik ez** dira azaltzen, adin-tarte bakoitzeko balio nagusien eta ezagumenduen garapenaren arabera.

Hainbat etapako progresioaren arabera landuko dira, aldiz, beste gaitasun batzuk. Kontzeptu, trebetasun edo jarrera funtsezkoenak lantzen dira adin gazteenetan eta sakondu eta xehetasun teknikoagoetan barneratuko gara eskola ibilbidean gora egin heinean (ikus denboraren antolakuntza adibidea).